


Begiratokiaren eskuinean El Castillo haitz ezaguna dago. Nafarroako Erresumaren garaiko gotorleku zahar baten hondarrak daude bertan, Mairuen Gaztelua esan ohi zaiona.



9. ANTOÑANAKO EZPELDIA (110 min)

Antoñana zidorrari Korrezerantz ekiten diogunean, jaitsiera hasiko dugu eta zurezko beste ate bat igaroko dugu. Orduan ezpel baso itzaltsu batean sartuko gara. Basoak goroldio asko eta pago batzuk dauzka. Baso magiko honetan barrena jaisten ari garenean, landaretza miresgarrian murgilduko gara; Izkiko Parke Naturaleko txoko zinez gogoangarria da.



Ezpelditik irteten garenean, seinalea ezkererantz jarraitu behar dugu, Korrezerantz, geure bidean segitzeko. Herrira iristen garenean, lekurik altuenetik sartuko gara, eliza ondoan. Han Kale Nagusia hartu behar dugu, eta kale horrek abialekura, Parketxera alegia, eramango gaitu. Horrela, ibilbidearen 130 minutuak osatuko ditugu.

IBILBIDEAREN DESKRIBAPENA

Ibilbidea: Zirkularra

Luzera: 6.100 m

Zailtasuna: Ertaina-Handia

Iraupena, gutxi gorabehera: 130 min

Igo beharreko malda: 371 m



NOLA HELDU

Ibilbidea Parketxean hasiko da, Korres herrian.



CASA DEL PARQUE - PARKETXEA

01129 Korres - ARABA

Tfno. (34) 945 41 05 02

parqueizki@parques.alava.net



Legre Gordailua • Depósito Legal: VI-488/13.

IZKIKO PARKE NATURALA



Agin • Antoñana

IBILBIDE ZIRKULAR BOTANIKOA



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

www.alava.net

1. PARKETXEA (0 min)

Parketxea eskuinetik inguratuko dugu (sarrerari begiratu gero). Agin izeneko zidorra hartuko dugu, zurezko seinaleak adierazten duen bidetik.



Ibilbidea hasitakoan, ezkerrean ortu batzuk ikusiko ditugu, eta pista batera iritsiko gara. Pista zeharkatu behar dugu, puntu horiari jarraituz. Hemendik aurrera aldapan gora hasiko gara zidor batean zehar. Zidorra pista batean amaitzen da.

IBILBIDEAN HORI KOLOREKO PUNTUEI JARRAITU BEHAR DIEGU ETA KOLORE BEREKO "X" MARKAK ALDE BATERA UTZI

2. ATETXOA (10 min)

Laster bidegurutze batera helduko gara. Aurrera segituko dugu eta atetxo batetik sartuko gara.



3. BIDEGURUTZEA (20 min)

Atetxotik sartu eta gutxira beste bidegurutze bat ikusiko dugu. Kasu honetan ezkerreko bidea hartuko dugu (eta ez bide nagusia), hori koloreko puntuei jarraituz.



4. AMEZTI TXIKIA (25 min)

Hemendik aurrera, ote zuriak (*Ulex europaeus*), txilarra (*Erica vagans*) eta erkametz txikiak (*Quercus faginea*) ikusiko ditugu nonahi, amezti txiki batera iritsi arte (*Quercus pyrenaica*). Argazkiko lursailera iritsiko gara eta zeharkatuko dugu.



Amezti txiki bat zeharkatu ondoren belardi batean gora ibili beharko dugu. Malda gero eta gogorra izango da, eta ote zuriak, txilarrak eta ipuruak (*Juniperus communis*) ikusiko ditugu.



Bideak mendi leporantz eramango gaitu karezko zona batetik. Handik putreak ikusi ohi dira.

Zona horretan zenbait espezie aurkituko ditugu. Haien artean aipatzekoak dira ezpela (*Buxus sempervirens*), artea (*Quercus ilex*), pagoa (*Fagus sylvatica*) eta azeri-mahatsa (*Arctostaphylos uva-ursi*).

5. HURRIZTIKO MENDI LEPOA (40 min)

Hurriztiko mendi lepora iristen garenean, jaitsi egingo gara, seinaleei jarraiki, La Dehesarantz (ezkerrera).

HOR ESKUINERA BIRATU AHAL DUGU, SOILA MENDIAREN GAILURRERA IGOTZEKO. HANGO IKUSPEGIA ZORAGARRIA DA.



La Dehesarantz jaitzen hasten garenean soka batzuk aurkituko ditugu, eta lagungarri izango zaizkigu malda gogorreko zidor hone-tatik jaisteko.



Bidean, ezpelez eta pagoez gain, lizarrak (*Fraxinus excelsior*) eta erratzak (*Ruscus aculeatus*) ikusiko ditugu.

6. ZUHAITZ BEREZIAK (55 min)

Gure bidean Eusko Jaurlaritzak izendatutako bi zuhaitz berezi aurkituko ditugu. Lehenengoa **Antoñanako Ezkia** da (*Tilia platyphyllos*). Argitu behar dugu hasieran zuhaitz berezi izendatu zutena ihartu egin zela eta beste batekin ordezkatu zutela, argazkian ageri denarekin alegia. Zidorrean zehar **Antoñanako Hagin** famatua (*Taxus baccata*) ikusiko dugu. Hortik hartu du bere izena Agina zidorrak.



7. ANTOÑANAKO ZIDORREKO BIDEGURUTZEA (75 min)

Zurezko eskailera batzuetatik jaitziko gara eta artadi bat zeharkatuko dugu (60 min). Tarte horretan zehar zenbait hostazuri (*Sorbus aria*) eta gurbitz (*Arbutus unedo*) ikusiko ditugu. Gero beste atetxo bat ikusiko dugu. Zeharkatu egin behar dugu eta zidorretik zuzen jarraitu, bide nagusia baztertuz. Orduan pagadi batean sartuko gara eta lehenengo gaztainondoak (*Castanea sativa*) ikusiko ditugu. Laster beste bidegurutze bat ikusiko dugu, zenbait seinalerekin, GR-282 seinaleak barne. Eskuinetik igotzen den pista hartuko dugu, Antoñanako zidorrarekin bat eginez, Korreserantz (argazkia).



Pista igoko dugu eta beste seinale bateraino iritsiko gara, Korresko bidea adieraziko diguna, Bujandarantzko seinaleari jarraitu beharrean. Beste atetxo bat zeharkatuko dugu eta gero puntu hori bat ikusiko dugu. Tarte horretan zehar, zenbait marmaraitila (*Viburnum lantana*), milazka (*Tamarix gallica*) eta karraskila (*Rhamnus alaternus*) aurkituko ditugu, besteak beste.

8. EL CASTILLO HAITZEKO BEGIRATOKIA (100 min)

Pixka bat aurrerago, ezkerrean El Castillo haitzeko begiratokia ikusiko dugu. Hemendik Izki ibaiko amildegiaren eta La Muela mendiaren (argazkiko gailurraren) ikuspegi ederra izango dugu.

